



**Arartekoaren 2021R-1415-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 17koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa jasotako zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, eta erabaki dezala ordaindutako zenbatekoak itzultzea, erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epaeren ondoren hasi delako.**

### Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, ez baitzegoen ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa bidegabe jasotako prestazioak erreklamatu izanarekin.

Erakunde honi jakinarazi zion ez zekiela zorrik zuela bere prestazioak berritzeko ebazpen batean –2020ko urtarrilaren 23koa– enpleguko erakunde autonomoak azken eranskin ekonomikoan txertatu zuen itzultzeko prozedura desberdinen artean ezagutzen ez zuen zenbateko bat antzeman zuenera arte. Eranskin horretan titularrak ordura arte ordaintzeke zituen zenbatekoa guztiak jasotzen ziren.

Zehazki, kexagileak 2017/REI/023494 erreferentziadun itzulketa prozedura aipatu zuen, 2.324,21 eurokoa, eta 2017ko azaroaren 27ko ebazpenaren bidez ebatzia. Prozedura hori berrikusi egin zen, izan ere, 2012/EXT/001695 erreferentziadun iraungitzea gertatu zen, 2012ko abenduaren 28ko ebazpenaren bidez ebatzitakoa.

2-. Inguruabar hori ikusirik, interesdunak esan du 2020ko urtarrilean kexa-idazkia aurkeztu zuela Lanbiden. Agiri horren bidez, berritzeko ebazpenaren eranskin ekonomikoan ordaintzeko gisa jasota zeuden zenbatekoak berrikusteko eskatu zuen, uste zuelako, berrikusitako zenbait aldi preskribatuta egon zitezkeela.

3-. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, adierazitako egitatei buruzko informazioa eskatu zion enpleguko erakunde autonomoari. Horrez gain, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi genizkion. Errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Zehazki, 2017/REI/023494 erreferentziadun itzultzeko prozedura osatzen duten egintza desberdinen kopia oso bat eskatu zuen, egiaztatzeko zein izan zen itzultzeko prozeduraren irekieraren eta horren ebazpenaren igorpen- eta





jakinarazpen-data. Era berean, jatorrian dagoen berrikusteko prozeduran aztertutako arrazoiei, datei eta aldiei buruzko informazioa eskatu zen.

4-. Lanbidek bertako zuzendari nagusiaren txostenaren bidez erantzun du:

“Interesdunaren 2006/RGI/003805 espedientea aztertu dugu, eta honako hau ikusi:

Kontuan hartuta bizikidetz-unitatearen aldaketa egon dela, ezkondu baita, eta bere senarraren DSBEan sartu dela (berea lagaz) eta helbide aldaketa komunikatu duela, 2012/EXT/001695 iraungitzea dakarren berrikuspena gertatu da 2012/12/28ko ebazpenaren bidez eta oker ordaindutako zenbatekoa kalkulatu da, zeina 2324,21 eurokoa den. Eta 2013/03/15ean jakinarazi zen.

Interesdunaren espedientea berriro aztertu da eta egiaztatzen da zorraren preskripzioa eten zela, itzultzeko prozedura hasi aurreko 2014ko irailaren 17ko jakinarazpen baten bidez.”

5-. Arartekoak, beranduagoko jakinarazpen batean, azpimarratu zuen zorra preskribatuta egon zitekeela eta Lanbideri espedientea berrikusteko eskatu zion. Orain arte ez da erantzunik jaso.

6-. Azkenik, datu interesgarri gisa, kexagileak Lanbideren ziurtagiri bat aurkeztu du. Bertan jasotzen denez, osorik ordaindu du aipaturiko zorra. Era berean, garrantzitsua da adieraztea une honetan ez duela inongo diru-sarrerarik, DSBEren azken eskaera ukatu baitzitzaion 2021eko urtarrilean eta lan-kontratua amaitu baitzitzaion 2021eko uztailen.

### Gogoetak

1-. Espediente honetan prestazioak erreklamatzeko prozedura bat aztertzen da. Prozedura hori 2012aren amaieran zorra eragin zuten gertakariak jazo zirenetik denbora-tarte dezente igaro ostean abiarazi zen. Une hori bat dator Lanbide DSBE kudeatzen hasi zen garaiarekin, atzeratze handiak gertatu zirenean prestazioak erreklamatzeko legezko prozedurak abiarazterakoan.

Zehazkiago, 2017/REI/023494 erreklamazio-espediente aztertzen zen, 2.324,21 eurokoa, eta 2017ko azaroaren 27ko ebazpenaren bidez ebatzia. Kexagileak





ziurtatu du horren berri izan zuen lehenengo aldia 2020ko urtarrileko prestazioak berritzeko ebazpenean izan zela.

Prozedura hori berrikusi egin zen, izan ere, 2012/EXT/001695 erreferentziadun iraungitzea gertatu zen, 2012ko abenduaren 28ko ebazpenaren bidez ebazitakoa. Lanbide jakinarazi duenez, iraungitze hori kexagileari jakinarazi zitzaion 2013ko martxoaren 15ean. **Adierazi beharra dago une hartan iraungitzeko ebazpenek ez zutela barne hartzen osteko erreklamazio batek hizpide izan zezakeen zorraren edukia;** hori dela eta, prestazioen titularrak nekez izan ahal izan zuen zorraren berri prestazioak erreklamatzeko prozedura abiarazi aurretik.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren 147/2010 Dekretuaren 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, preskripzio-epea 4 urtekoa da, eta aldi hori administrazio eskumendunak **itzulketa betebeharra sortzen duen egitatearen berri izan zuenean hasi zen.**

Itzultzeko betebeharra bere senarraren bizikidetzaren unitatea osatzera pasa zen kexagilearen jakinarazpenaren ostean sortu zen. Kontratua iraungitzeko ebazpena 2012ko abenduaren 28an eman zen, **eta, beraz, nahiz eta iraungitze-ebazpena kexagileari 2013ko martxoaren 15ean jakinarazi, preskripzio-epearen hasiera-data kexagileak bere bizikidetzaren unitatearen osaerari eragiten zion gertaeraren berri eman zuenean ezarri behar da,** une horretatik aurrera jakin baitzuen administrazioak itzultzeko betebeharra zuela.

Horren haritik, Auzitegi Goreneko Lan-arloko Salako 1. Atalak, 2938/2014 Doktrina bateratzeko errekurtsoa, 2016ko otsailaren 16ko Epaian, doktrina ezarri zuen bidegabe jasotako Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokienez ezarritako preskripzio-epearen zenbaketaren hasiera-dataren harira; antzeko ezaugarriak dituena:

"En consecuencia, por analogía con lo que acontece cuando es el beneficiario el que reclama el abono de una prestación periódica ya reconocida en que "el derecho al percibo de cada mensualidad caducará al año de su respectivo vencimiento" (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 44.2 artikulua), ulertu behar dugu erakunde kudeatzailea denean bidegabe jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatzen duena, hileroko bakoitza itzultzeko eskubidea bidegabeko ordainketa egiten denetik lau urtera preskribatuko dela; hortaz, erreklamazioa "fue posible ejercitar la acción para exigir su devolución" (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 45.3 artikulua ohia) den momentutik gauzatzen bada, hala badagokio,





azken lau urteetan jasotako zenbatekoak itzultzeko erreklamatu ahalko da. **Baina, edozein arrazoirengatik Erakunde Kudeatzaileak, itzultzeko eskubidean lehenago baliatu bazezakeen ere** (epaitutako kasuan, Lan Ikuskapenaren aktaren berri izan zuenetik), **dagokion ekintza gauzatzea atzeratzen badu, preskripzioa bere kontra joango da, eta bidegabe ordaindutako hilerokoak erreklamatu ahalko ditu bakarrik atzeraeraginez onuradunari itzultzeko espedientea abiarazi zela jakinarazi osteko egunaren aurreko lau urteetan.** Izan ere, oro har (Kode Zibilaren 1969. art.), aipaturiko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 45.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, "El tiempo para la prescripción de toda clase de acciones, cuando no haya disposición especial que otra cosa determine, se contará desde el día en que pudieron ejercitarse", **legitimazioa duenak ez badu gauzatzen ekintza hura gauzatu ahal izan zenean** —aldi baterako betebeharrak bete daitezela erreklamatzeko—, ondoz-ondoko hilerokoek —bere kasuan erreklamatu gabeak— preskribatzen jarraituko dute, izan ere, bakarrik **"La prescripción de las acciones se interrumpe por su ejercicio ante los Tribunales, por reclamación extrajudicial del acreedor y por cualquier acto de reconocimiento de la deuda por el deudor"** (Kode Zibilaren 1973. art.)."

Auzitegi Gorenak baieztatu du erreklamatzeko ekintzaren gauzatzea luzatu egin denez kexagileak onuradunari itzultzeko espedientearen hasiera jakinarazten zaion egunaren aurreko lau urteetan ordaindutako prestazioak erreklamatu daitezkeela.

Edonola ere, kontuan hartuta ere iraungipen-ebazpenaren data bera, **2012ko abenduaren 28a, erreklamatzeko prozedura hasi eta ebatzi zenera arte igarotako epea araudian aurreikusitako lau urteak baino gehiago izango litzateke.**

2-. **Preskripzioaren eteteari** dagokionez, EAEko Ogasun Orokorreko araubidean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolamendu arauari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) hauxe zehazten da preskripzioari dagokionez:

"44.3 Atala. Nolanahi ere, eskubide publikoen preskripzio epeak honako arrazoi hauek direla-eta eten daitezke:

a) Edozein administrazio-ekintza dela-eta: zordunaren ezagutza formalarekin egiten bada ekintza, nahiz eta dagokion jakinarazpena akastuna izan, eta **ekintzaren helburua aitortzea, kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.**





- b) **Zordunak** ekintzak burutzen dituenean, eta **erreklamazioak edo errekurtsioak jartzen dituenean**, nahiz eta legez ezarritakoak ez izan edo formulazio aldetik txarto eginda egon. Dena den, batzuek zein bestiek zerikusia izan behar dute aurreko epigrafeek aipatzen dituzten eskubideekin; hala ere, bada salbuespen bat, alegia, erreklamazio edo errekurtsioen eskari nagusi eta bakarra izatea preskripzioa ontzat ematea edo aitortzea.
- c) **Zordunaren edozein jarduketa dela-eta**, baldin eta jarduketa **horren helburua aitortzea, kitatzea edo kobratzea bada, edo aurreko hiru horiekin zerikusia badu.**”

Erakunde honek duen dokumentazioa aztertu ostean, zeinak ez baitu jasotzen itzultzeko espedientearen kopia osoa baina bai aurrekarien atalean aipaturiko informazio-eskaeraren aurrean administrazioa emandako erantzuna, espediente honetan ez da eman Zuzenbidean baliozkoa den egintzarik, etetea eragiten duenik.

Aurkezturiko informazioaren arabera, Lanbidek ulertzen du preskripzio-epea 2014ko irailaren 17an aldeztu aurreko jakinarazpena bidali izanagatik eten zela.

Ararteko honek azken baieztapen horrekin ados ez dagoela besterik ezin du esan. Arartekoaren ustez, **jakinarazpen hori ez da baliozko preskripzio-epea eteteko**. Jakinarazpenean bertan adierazten zen ez zuela ondorio juridikorik. Gogoratu beharra dago Arartekoaren Ebazpena<sup>1</sup>, Lanbideren jarduketari dagokionez; bertan aztertzen zen 2014ko irailean jakinarazpen asko bidali zirela bidegabe ordaindutzat jotzen ziren zenbatekoak erreklamatzeko:

“Gizarte bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan zegoen jende askorengan nahasmena eragin zuen, eta babesgabetasuna eragin ahal izan zuen 2012. Urteari zegokion zorrari buruzko aurretiko jakinarazpena bidaltzeak, Lanbideren jakinarazpenetan hutsuneak egon ziren urtea izaki, **ez** baitzegoen bidegabe jasotako prestazioen jatorriari buruzko informazio eskaerei zehaztasunez erantzuteko bitarteko nahikorik.”

“Bidegabe jasotako prestazio ekonomikoaren jatorriari, arrazoiei eta kontzeptuei buruz xehetasunez informatzeko ahalegina egiten jarraitu behar du Lanbidek, eta kontuan hartu behar ditu aurkeztu diren arrazoibideak, zorrari buruzko jakinarazpenarekiko adostasuna erakutsi duten gorabehera.

---

<sup>1</sup> Euskadi. Ararteko. Arartekoaren 2015NI-2120-14 Ebazpena, 2015eko ekainaren 8koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Lanbidek bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzeko jarraitu duen prozedurari buruzko esku-hartzea. Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3730\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3730_1.pdf)



Prestazioak bidegabe jaso ez direla ondorioztatzen den kasuetan, espediente berrikusi beharko litzateke.”

3-. Laburbilduz, defentsa-erakunde honek espediente osoaren kopia bat bidaltzeko eskatu badio ere erakunde autonomoari, kopia hori ez da bidali. Puntu horretara iritsita, garrantzitsua da gogoraraztea otsailaren 27ko 3/1985 Legearen —Ararteko erakunde sortu eta arautzekoak— 23. artikuluan aurreikusitako lankidetzabetebeharra: *“9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude”*.

Eskura daukagun informazioari jarraikiz, eta aurreko arretarekin, honako hau ondorioztatu da: zorra kexagileak 2012an bizikidetz-unitatean egindako aldaketaren jakinarazpenaren ostean sortu zen; data hori ez da ezaguna, baina iraungitze-ebazpena 2012ko abenduaren 28koa da; itzultzeko betebeharra 2017ko azaroan ebatzi zen. 2012ko abendutik, edo aurretik —gertaeraren jakinarazpen-data— 2017ko maiatzera arte, 4 urteak gainditzen dituen denbora-tarte bat egon zen. Hortaz, preskripzio-epea eta araudian administrazio ona izateko eskubidearen harira ezarritako mugak gainditu dira.

Lanbidek gauzaturiko jarduketari dagokionez, defentsa-erakunde honek beste ebazpen batzuetan aztertu ditu<sup>2</sup> **berrikusteko ahalmenaren mugak, epe luzeegi bat igaro izanak** aukera ematen duenean ulertzeko ekintza preskribatu egin dela, **eta, Arartekoaren ustez, administrazio onerako eskubidearen ondoriozko betebeharren aurka jokatu zela.**

**Administrazio onerako eskubidea** Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren bidez garatu da, erkidegoa integratzeko prozesuan, eta Europar Batasunaren esparruan oinarritzkoa dela adierazi da (Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Kartako 41. artikulua; Karta Europar Batasunaren Tratatu aldutzen duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da).

---

<sup>2</sup> Euskadi. Ararteko. Arartekoaren 2019R-2234-17 Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4697\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4697_1.pdf)

-Arartekoaren 2019R-2294-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.

Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4683\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4683_1.pdf)

-Arartekoaren 2020R-2341-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, erreklamazioaren egintza iraungi egin baita.

Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4981\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4981_1.pdf)





Artikulu horren arabera, administrazio ona izateko eskubidearen barnean honako hau sartzen da: **pertsona orok bere gaia inpartzialtasunez, bidezko moduan eta arrazoizko epean** tratatzeko eskubidea. Eskubide hori Europar Batasunaren eremura mugatuta dago, baina Europar Batasuneko estatuen ordenamenduetan txertatzen ari da, eta Espainian kontuan hartu da ebazpen judizialen batean, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 20ko epaian gertatu den bezala (errek. 1203/2014).

Eskubide horrek administrazio publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetzeari eragiten dionez, eta, bereziki, gizarte demokratikoetan pertsonen eskubideak kudeatzen dituzten zerbitzu publikoetan, Europako Kontseiluak estatu kideei zuzendutako gomendio bat egin du (**Recommendation CM/Rec(2007)** of the Committee of Ministers to member states on good administration<sup>3</sup>). Gomendio horretan, printzipio eta estandar jakin batzuk proposatzen ditu, besteak beste, **proportzionaltasunarena edo jarduketa arrazoizko epe batean egitea**, edo gardentasunarena.

Arartekoak beste batzuetan adierazi duen bezala<sup>4</sup>, preskripzioaren erakunde **juridikoa segurtasun juridikoaren printzipioari lotuta dago (EKren 9.3 artikulua)** eta zuzenbide-estatu baten funtsezko balioen artean dago. Segurtasun juridikoaren mesedetan, pertsonak eskubidea du bere egoera juridikoa modu eztabaidaezinean defini dadin, arrazoizko denbora-tarte batean. Prestazioak edo laguntzak ematen dituen administrazioak kontu handiz jokatu behar du aurrekontu publiko baten kargura egiten dituen datuak egiaztatzean. Epe hori lau urtekoa izango dela aurreikusi da; izan ere, ezin dira pertsonak ziurgabetasun juridikoko aldi batera eraman Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren hitzetan<sup>5</sup>, eta epe horren ondoren ezin izango da frogatu eragiketa eztabaidatuen erregulartasuna.

Aurreikusitako preskripzio-epaia igaro ondoren, Lanbidek ordaindutako prestazioak erreklamatzeko egindako jarduketa, aurreko azterketaren ostean ondorioztatu den bezala, araudiaren kontrakoa da. Kexagileak etxebizitzaz aldatu zuela eta bizikidetzaren unitatearen osaera aldatu zuela jakinarazteko betebeharra bete zuen.

<sup>3</sup> Hemen eskuragarri: <https://rm.coe.int/16807096b9>

<sup>4</sup> Euskadi. Ararteko Arartekoaren 2020R-2341-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, erreklamazioaren egintza iraungi egin baita.

Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4981\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4981_1.pdf)

<sup>5</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (Hirugarren Sala). Cruz & Companhia Lda kasua Instituto de Financiamento da Agricultura e Pesca IP (IFAP) erakundearen kontra. 2014ko irailaren 17ko Epaia [online]. ECLI:EU:C:2014:2230.

Hemen eskuragarri: [https://eur-](https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:62013CJ0341&qid=1588922003712&from=ES)

[lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:62013CJ0341&qid=1588922003712&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:62013CJ0341&qid=1588922003712&from=ES)





Lanbidek, hala ere, ez zuen Zuzenbidean baliozkoa den moduan eskatu bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko jakinarazpena egiten denetik 4 urteko epea igaro aurretik.

Berrikuspen-ahalmenak ezin dira inolako mugarik gabe baliatu, iragandako denbora neurtu behar da, eta ezin dira baliatu hori ekitatearen edo fede onaren aurka badao edo ekintza preskribatu egin bada (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 110. art.).

Arartekoaren iritziz, espedientea berrikusi beharko litzateke aurreko gogoetak kontuan hartuz eta legezketasun printzipioari eta berrikuspen-ahalmenaren mugei jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari:

## **GOMENDIOA**

Lanbidek berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako 2.324,21 euroko zenbatekoa itzultzeko betebeharra deklaratzeko duen ebazpena, izan ere, prestazioak erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintza preskribatzeko aurreikusitako epea igaro ostean abiarazi baita, dagozkion legezko ondorioekin; hau da, dagoeneko ordaindutako preskribaturiko zorraren zenbatekoak itzultzea.

